


Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com


Mattin Labayen Sansinenea

*Tolosa,
Gipuzkoa
(1931)*

Aurkibidea



Biografia



Ama Donostiako alde zaharrekoa zuen, eta aita, berriz, Antonio Maria Labayen, tolosarra. Aita Tolosako alkate izatera heldu zen, Eusko Alderdi Jeltzaleko kide gisa. Antzerkigintzan ere lan mardula egin zuen, eta euskaltzain ere izan zen. Aitak sorturiko giro horretan hezi zen Mattin. Gerra hasi zenean, ordea, Bidasoako mugaz beste aldera joan behar izan zuten; lehenik, Sarara eta, ondoren, Donibane Lohitzunera. Saran kokatzen ditu Mattinek bere oroitzapen goxoenak. Alta, 1944an Tolosara itzuli ziren Mattin eta bere anaia, Ramon. Ordurako Mattinek argi zuen pintura zela bere zaletasunik maiteena eta bere adierazpidea. Hala, pinturan sakondu zuen, Arte Ederrak ikasiz. Ez dio sekula pintatzeari utzi.

Zintak

TOL-032

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-09-07
- **Iraupena:** 90 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Arteaga, Karmele
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider

TOL-033

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-09-07
- **Iraupena:** 16 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Arteaga, Karmele

Pasarteak

1. Tolosako lehen ikastola

- **Erref:** TOL-032/004
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:05:07. **Bukatu:** 00:07:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Aita Tolosako alkate izan zen 1936 urtean. Garai hartako oroitzapenik ez du. Lehenengo ikastola aitak sortu zuen Orixe, Lizardi eta Aitzolekin batera. Gerrak bertan behera utzi zuen beraien proiektua.</p>

2. Mattinen aita jakintsua

- **Erref:** TOL-032/006
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:08:56. **Bukatu:** 00:11:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kultura

Laburpena:

Mattinen aita jakintsua zen. Alemanian ikasi zuen. Bost hizkuntza zekizkien. Han ezagutu zituen gustuko izango zituen antzerkiak. Gerrak amaitu zituen bere antzerki lanak. Antzerki asko sortu zituen.

3. Aita Jelkidea

- **Erref:** TOL-032/008
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:11:45. **Bukatu:** 00:13:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Aita gizon ona, baketsua eta erlijiosoa zen. Jelkidea zen. Oraingo EAJ asko aldatu dela iruditzen zaio. Egiazko abertzaleak lehengoak zirela dio eta haiek aipatzen ditu.

4. Maitasun tolerantzia transmititu zien aitak

- **Erref:** TOL-032/011
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:16:46. **Bukatu:** 00:19:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:

Aitak maitasuna transmititu zien, Euskal Herriaren aldeko maitasuna. Baina beti besteak errespetatuz. Maitasuna tolerantea izan behar du. Politikariak eta herritarrak desberdindu behar direla dio. Politikariak dira pluralismoa onartzen ez dutenak eta Espainiako herritarrak berriz euskaldunak ongi ikusten dituzte. Espainiatik etorritako askok primeran hitz egiten dute euskaraz.

5. Sarako urte zoriontsuak

- **Erref:** TOL-032/013
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:20:55. **Bukatu:** 00:23:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

<p>Gerra hasi zenean, Ziburura joan ziren eta ondoren Sarara. Hiru urte egon ziren bertan. Gero, Donibanen egon ziren. Sarako oroitzapenak dira onenak, hura da bere zerua. Eresoinka abesbatza sortu zen, eta bertan Luis Mariano ezagutu zuen.</p>

6. Sarako giro euskalduna

- **Erref:** TOL-032/014
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:23:05. **Bukatu:** 00:25:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Gerra garaian, Saran mugimendu euskaltzale handia zegoen. Giroa erabat euskalduna zen. Saran zeuden pertsonaia ezagunak gogoratzen ditu.

7. Euskararen aldeko apaizen lana

- **Erref:** TOL-032/015
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:25:17. **Bukatu:** 00:27:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Euskararen aldeko lan handiena apaizek egiten zuten. Etxepare, Axular, Lekuona, Azkue eta beste batzuk aipatzen ditu.

8. Alemanak Saran

- **Erref:** TOL-032/017
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:28:38. **Bukatu:** 00:30:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Eragina Ipar Euskal Herrian

Laburpena:

Sarako garaian, alemanekin kontaktua izaten zuten. Alemanen armada Saran sartu zenean, aitzak alemanez zekienez, berarekin harremanetan jarri ziren interprete-lanak egiteko. Euskaldunak arioak zirela zioten; eta, horregatik, ez zituzten molestatu.

9. Frantziako erbestealdia

- **Erref:** TOL-032/021
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:36:50. **Bukatu:** 00:39:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Donibanen zegoela, gabezia handiak gogoratzen ditu. Irratiz dei bat jaso zuten. Erbestean zegoen Eusko Jaurlaritzaz hitz egiten du. Estatu Batuek Francori emandako babesa aipatzen du. Frantzia espainoltzat hartzen zituzten. Errepublikanoak ere bazeuden Frantzian.

10. Aita deportatu egin zuten

- **Erref:** TOL-032/022
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:39:53. **Bukatu:** 00:42:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

<p>Erbesteratuta zeuden espainolekin harremanak bazituzten. Aita deportatu egin zuten. Amak asko sufritu zuen. Mattin txikia zenez ez zen ezertaz enteratu.</p>

11. Agirre lehendakariaren ihesa eta filosofia

- **Erref:** TOL-032/024
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:43:06. **Bukatu:** 00:44:23

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

<p>Joxe Antonio Agirre Alemaniara mozorrotuta joan zen eta handik Amerikara iritsi zen. Bai Agirrek eta bai besteek barkatzen jakin zuten.</p>

Transkripzioa

- Baiño habeidi habeidi nik uste det euskal refuxiatuak, abertzaleak, buruzagik, bai Agirrek ere, Agirre, Agirre, Agirreren polizia zabilen bere atzetik, alemanak, Gestapo. Ta refuxiatuta Alemanin jun zan. Ordun liburu bat "Gernika - Nueva York". [...] "¿Y qué hice? Con bigote [...]" bigotia jarri ta Alemania jun zan, handik Belgika, ta Belgikatik Ameriketa. Ta liburua bada, nobela bat dirudi. Hori egin daiteke pelikula bat, baiño busti egin zan e? Baiño gero esan zun: "Yo he sufrido mucho, me han hecho daño, me han... La fábrica de chocolate Bilbao, me hundieron". Hoi Agirretarrak zeukan txokolate-fabrika Bilbaon, Txobilkao. Dena hondatu zioten, dena kendu hura're bai. Baiño izan zun, "Cuidau con que tenga odio en el corazón. Yo perdono". Ta hoi barkatu in zuen denak, bai aitak eta denak, denak barkatu in zuen.

12. Amak frantsesez ongi zekien

- **Erref:** TOL-032/028
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:51:05. **Bukatu:** 00:53:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Euskara

Laburpena:

<p>Amak frantsesez ongi hitz egiten zuen. Ama Donostiako familia aberatsa batean jaio zen eta ondoren Hernanira joan ziren bizitzera. I. Mundu Gerra garaian frantsesekin negozioak egin zituzten. Hernanin zegoen Jesuita euskaltzain batekin harremana izan zuten eta mojan eskolan frantsesez ikasi zuen.</p>

13. Ikasketak Iparraldean

- **Erref:** TOL-032/029
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:53:40. **Bukatu:** 00:55:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Euskara
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza

Laburpena:

<p>Iparraldean zeudenean bai frantsesa bai euskara hitz egiten zuten. Andereño bat etxera joaten zitzairen. Mattin oso alferra omen zen, bere airera ibiltzea gustatzen zitzaion.</p>

Transkripzioa

- Eta ordun zuek iparraldea errefuxiatu ziñatenian, zuen amak saiakeran bat in zun zuei frantsesa etxen erakusteko?
- Bai, bai, dudik gabe, dudik gabe, bai frantsesa, bai euskera ta bai erdera, hirurak. Ta ikasi daiteke hiru hizkuntza. Oain bezela, oain ikastoletan ere inglesa, uste det inglesa dagola, ezta? Inglesa, frantsesa, inglesa geo euskera, erdera. Bueno, bien.
- Zuei etxen ematen zizuen klase moduko bat?
- Bai, bai, bazan andereño bat, "era" Karmen Egia. Ta nik esan nun, oso alperra nintzan, "joder, más vago" gaiñea, alperra nintzan, bai. Ez zait gustatu estudiantzia neri. "Yo era" abenturak, nere aidea ibilli, Saran, nere aidean. Piperrak iten nitun [...]. Saran piperrak iten nun. Mitxeletak ere harrapatzen, baiño behin azkenian erori nintzan: "Ah! Volviste antes de tiempo y te calamoz". "No me ha gustado estudiar. A mí mas estudiar me gustaba a mi aire. Me gustaba pintura también que es un oficio libre". Pintura ikusten dezu, koadroz betea daukazu hemen.
- Hoi galdetu ber nizun.
- Hoi izan zan ya [...] "cuarenta y cuatro o cuarenta y cinco", etorri giñan Donostia bizitzea.

14. Donostiako Jesuiten eskolan

- **Erref:** TOL-032/030
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:55:03. **Bukatu:** 00:57:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

<p>1944ean Donibanetik Donostiara bidali zuten, Jesuitekin ikastera. Mattinek Frantzian geratu nahi zuen eta asko sufritu zuen Jesuitak eskuineko aldekoak zirelako. 1952 arte egon zen Jesuitekin. Urte haietan anaia eta bera Pasaian bizi ziren.</p>

15. Lehenengo ikastolak

- **Erref:** TOL-032/031
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:57:06. **Bukatu:** 01:00:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Frantzian azkenean onartu zituzten eta ongi egokitu ziren. Donostian zeudela

anaia politikan sartzen hasi zen. Urte haietan ezagututako irakasleak aipatzen ditu. Saran egon zen lehenengo ikastolan ikasi zuten. Gero hemen sortu zuten lehen ikastola baina modu klandestinoan.

16. Hizkuntza independentzia baino garrantzitsuagoa da

- **Erref:** TOL-032/033
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 01:01:23. **Bukatu:** 01:05:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Ez du inoiz politikaren tentaziorik izan. Euskalduna eta euskal zalea dela dio baina politika oso urruti ikusten du. Politikariak profesionalak izan behar dutela iruditzen zaio. Independentzia defendatzen du baina bakean sortzen bada. Euskara da garrantzitsuena, hori galtzen bada independentziak ez du zentzurik. Hizkuntzak ematen dio nortasuna herriari.

17. Pinturarekiko zaletasuna

- **Erref:** TOL-032/035
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 01:07:41. **Bukatu:** 01:10:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura
- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Oso txikitatik pintura gustatu zaio. Afizioa baino gehiago bere bizitza izan da. Agirre Lehendakariak artea ere aberriaren aldeko lana egiteko baliotsua izan zitekeela esaten zuen. Mattinek akademia batean umeei pintatzen erakutsi die. Gizarteari ezin zaio bizkarra eman.

18. Artea herriaren zerbitzura

- **Erref:** TOL-032/036
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 01:10:08. **Bukatu:** 01:11:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura
- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Mattinentzat pintura herrian kultura zabaltzeko tresna izan da. Artea herria kulturaren bidean jartzeko tresna da, hori da bere pentsamendu magikoa.

19. Pintore bezala nola formatu den

- **Erref:** TOL-032/037
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:11:52. **Bukatu:** 01:13:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura
- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Laburpena:

Donostian Martiarena izeneko pintura maisua izan zuen. Ondoren Parisen ikasi zuen. Arte Ederrak postaz ikasi zituen.

20. Mattinen arte lanak

- **Erref:** TOL-032/038
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:13:37. **Bukatu:** 01:15:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura
- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Bere lanak infantilak dira baina indarra dute. Bere pinturaren inozentzia sentsibilitatearekin lotuta dioala uste du. Parra pintoreak horrela definitu zuen Mattinen obra.

21. Galdutako zorionaz hitz egiten du

- **Erref:** TOL-032/039
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 01:15:09. **Bukatu:** 01:17:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura
- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Paisaiak margotu ditu. Betidanik jakin du hori zela egin nahi zuena. Galdutako zoriona faltan botatzen du. Ruben Dario eta Bertol Bretch aipatzen ditu.

22. Euskara batuaren aldekoa da

- **Erref:** TOL-032/043
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 01:26:46. **Bukatu:** 01:30:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara
- Euskara » Euskararen egoera

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Euskara bakarra izan beharko lukeela iruditzen zaio. Sarako euskara ikasi zuen. Han ikasitako hitzak erreparasatzen ditu. Tolosako euskara hoberena den edo ez daki, ez da filologoa. Mattinek Sarako euskara oso gustukoa du.

23. Fedea eta barne bizipenak

- **Erref:** TOL-033/002
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 00:01:29. **Bukatu:** 00:05:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:

Fededuna da kristauek askotan irudi onik ez eman arren. Nazional katolizismoak zabaldutako erlijioa salatzen du. Fedea gauza sakona dela dio. Amak erakutsi zion fedearen bidea. Espiritualitatea beharrezkoa dela iruditzen zaio. Diruak bakarrik ez du balio, barne bizitza behar dugu.

24. Beste Euskal Herri batekin amets egiten du

- **Erref:** TOL-033/003
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:05:13. **Bukatu:** 00:06:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:

Beste Euskal Herri bat nahiko luke, baketsua, tolerantea eta biolentziarik gabekoa. ETak armak utzi behar dituela dio.

25. Inozentziari buruzko gogoetak

- **Erref:** TOL-033/006
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:10:40. **Bukatu:** 00:11:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Gauza serioez serio hitz egiten du. Txikitako inozentzia kentzea ez zaio gustatzen. Zergatik okertzen gara?

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-06-06

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com